

DISPERTSIO URTEAK BIZKARREAN > 10

Jon URBE | FOKU





4



Manal Tamimi: «Erresistentzia ez-bortitzaren alde egin dugu eta zigor eredugarria ezarri nahi digute» 04

Dispertsio urteak, arima eta osasuna zimurtzen dituzten urteak, bizkarrean 10

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



10



18



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Nazioarteko ordenaren suntsipen planifikatua
- 08 **Ula Iruretagoiena:** Porlanezko lurraldea
- 09 **Ramon Sola:** Grande-Marlaska ez da bat-batean zalditik erori
- 18 **Arantxa Urbe:** Bidaia batean bezala
- 19 **Laura Mintegi:** Sanferminak bizipoza dira
- 20 **EXPRAI**
- 21 **Mirari Martiarena:** Eredu bitala
- 21 **Koldo Sagasti:** Ez dezatela mezularia hil
- 22 **Amaia Urrejola:** Sexua purgatzen



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Nazioarteko ordenaren suntsipen planifikatua

Ekainean Kanadan egin zen G7ko bilera akordiorik gabe amaitu zen. Hiru egun geroago Donald Trump eta Kim Jong Un AEBetako eta Ipar Koreako agintarien arteko bilera egin zen Singapurren. Gailurrak ez zuen emaitza berezirik ekarri. Beharbada Ipar Korearen aldera erori da etekin nabarmena: AEBetako presidentearekin bildu da lehen aldiz bertako burua, kontzesio berezirik egin gabe, gainera. Zentzu horretan, ez dago argi zer etekin atera nahi zuen Trumpek bileratik, ez bada nazioarteko instituzioak astintzen jarraitzea. Jorera horren adibideak ugariak dira: Trumpek muga-zer-gak igo ditu, Munduko Merkataritza Erakundea uzteko mehatxua egin du, Europako aliatuei buruz «Txina bezain gaiztoak» direla esan du ondoren aurpegiratzeko AEBek «dirutza» gastatzen dutela «beren segurtasun- an»... Orain, uztaileko, Vladimir Putinekin beste gailur bat iragarri du Trumpek.

Mugimenduotatik ondoriozta daitekeen ia gauza bakarra honakoa da: AEBek munduko ordena neoliberala hankaz gora jarri nahi dute. Erabaki horren oinarrian, zalantzarik gabe, Txinaren gorakada ekonomiko, politiko eta militarra dago. Aurreko AEBetako presidentek betiko tresneria erabili zuten Txinaren nagusitasunari mugak jartzeko. Obamaren garaian merkataritza akordio berriak landu ziren –TTIP eta TPP delakoak–. Hitzarmen horiek guztiek Txina albo batera uzten zuten, bere inguruan segurtasun kordoia osatzeko asmoarekin. Beharbada, akordioak erdietsi eta gero, AEBetako eliteari bide hori etorkizunik gabekoa iruditu zaio; edo mantsoegia –behin baino gehiagotan Trumpek aipatu du horrelako alde askotariko akordioak ixteak oso luze jotzen duela–. Arrazoiak arrazoi, eta beharbada barne adostasun handirik gabe, AEBak beste bide bat jorratzen hasi dira: nazioarteko arkitektura desgitea. Eta ematen du Trump horretan ari dela buru

belarri. Horrela bakarrik uler daitezke G7ko bileran izan zituen tirabirak, Munduko Merkataritza Erakundea uzteko mehatxua, NATOrekiko azaldutako jarrera hotza eta nazioarte mailan eman dituen bestelako urratsak.

Ziurrenik, AEBetako eliteak ikusi du Txinak zer-nolako abilezia erakutsi duen sortuta dagoen nazioarteko arkitektura baliatzeko. Izan ere, orain, hartu duen tamainagatik, Txina gai da sistema horretatik etekina ateratzeko. Esate baterako, Munduko Merkataritza Erakundeak Txinari hasieran ez zion merkatu ekonomiaren estatusa eman. Horrek Txinaren ahalmena mugatzen zuen merkataritza askeko arauetatik etekinak lortzeko. Baina, behin izaera hori lortuta, Txina izango da arau horietatik etekin handiena lortuko duena, estatu handiei mesede egiten baitiete arauok. Gauzek horrela jarraituz gero,

Txinak nazioarteko arkitektura baliatzeko erakutsitako abilezia ikusita, AEBetako eliteak egungo egitura guztiak zapuztea deliberatu duela dirudi. Txinak berriak nahi baditu, berak sortu beharko ditu

Txinak berak sortu ez duen baina bere mesedera funtzionatuko duen nazioarteko egitura izango du eskura.

Horren aurrean, nonbait, AEBetako eliteak deliberatu du nazioarteko egungo arkitektura guztia zapuztea. Txinak mundu mailako egitura berriak nahi baditu, berak sortu beharko ditu. Eta horretan denbora eta baliabideak inbertitu beharko ditu. Txinarekin borrokatzeko, ematen du AEBak “lur errearen estrategia” erabiltzen ari direla. Horrek goitik behera aldatzen du nazioarteko testuingurua, ezeagonkortasuna areagotuz. Munduko segurtasuna bermatzeko ikuspegi orokorra izatea ezinbestekoa den uneotan, hori ahalbidetzen duten egiturak desgiten ari dira. Garai oso arriskutsuak datoz. •

«Israeldarren errepresioa bereziki zitala da gurekin, erresistentzia ez-bortitzaren alde egin dugulako. Zigor eredugarria ezarri nahi digute»

Pasa den abenduaren 19an Israelgo Armadak Ahed Tamimi 16 urteko neskatila palestinarra atxilotu zuen Nabi Saleh herrian, Zisjordanian, bere etxe atarian grabatutako bideo bat sare sozialetan lau haizetara zabaltzeko. Bideoan, nera-beak, esku hutsik, zaplazteko bat ematen dio okupazio armadako soldadu bati. Ordurako gaztetxoa ezaguna zen ekintzaile zirkuluetan, armada okupatzaileko uniformedunei aurre egiten zieteneko bideo ugari zabaltzeagatik. Neskati-lari hamabi kargu leporatu zizkion auzitegi militar batek soldadua lotsagarri utzi zuen belarrondokoagatik. Harrezkero, sei hilabete eman ditu preso, bakartuta. Halaber, zenbait gobernu kanpoko erakundek Tamimi familiako neskato gazteak itaunketetan pairatutako jazarpen sexuala eta mehatxuak salatu dituzte. Berea ume palestinarraren baten aurkako beste jazarpen istorio bat izan zitekeen. Baina Ahed Tamimi Palestinako erresistentziaren ikur bilakatu da eta bere aferrak agerian utzi du palestinarrek, zehazki adin txikikoek, okupazio erregimenaren esku pairatzen duten jazarpena.

Manal Tamimi, Aheden izeba, ekintzaile ezaguna da Palestinan. Zisjordaniako Herri Erresistentzia Ez-Bortitzerako Batzordeko kidea da, eta preso politiko ohia. Azken aldiz 2017ko abenduan atxilotu zuten, Ofer espetxearen atarian, ilobaren askapena aldarrika-

MANAL TAMIMI EKINTZAILE PALESTINARRA

Ahed Tamimi 16 urteko palestinarra kartzelan dago duela sei hilabetetik. Soldadu israeldar bati zaplazteko bat eman eta une hori jasotzen duen bideoa sare sozialetan zabaltzea izan da bere delitua. Haren izeba Euskal Herrian izan da; Tamimi familiaren, Nabi Saleh Zisjordaniako herriaren eta palestinarren erresistentzia ez-bortitzaren berri lehen eskutik emateko.

Koldo SAGASTI eta Beatriz UMBON

tzeko protesta batean. Egundotan Euskal Herrian izan da, So-depaz eta Internazionalistak Elkarlanean erakundeek gonbidatuta.

Azken urteotan zure herriak, Nabi Saleh, sona handia lortu du okupazioaren aurkako erresistentzia irmoa aurrera eramateagatik. Zergatik?

Gu 1967tik, hau da, Zisjordaniako okupazioa hasi zenetik, ari gara erresistentzian. Baina erresistentzia 1976an hasi zen biziagotzen, orduan kolonia bat eraikitzen hasi zirelako herriko eremuetan. Harrezkero lurraren okupazioaren aurkako borrokan ari gara. Izan ere, israeldarrek hamaika trikimailu baliatzen dituzte gure lurrak desjabetzeko: eurenak dira esaten dute, kolonoen kokalekuak hornitzeko errepide sarea zabaltzen dute, baliabide naturalekin aberatsenak diren lurrak bereganatzen dituzte edota itxitako eremu mitarrak ezartzen dituzte. 2009an erresistentzia ez-bortitzari ekin genion eta gisa horretako herri mugimendua jarri genuen abian Palestina osoan. Geroztik estrategia ez-bortitzen bitartez ari gara okupazioari aurre egiten. Bide baketsuak erabiliz ari gara lurren desjabetzearen kontrako borrokan, zehazkiago gure eremuen lapurretaren aurka. Mugimenduaren muina herriko 650 biztanleak gara, denak familia berekoak. 2009an borrokan hasi ginenetik, gutako 500 auzipetu gaituzte, 220 kartzelan izan gara, horietako 47 umeak; pentsa, 15 urtetik be-

herako hemezortzi senide kartzelatu dituzte. Espetxeratu gazteena Suhaib izan da, hila-bete eskas bat da aske utzi zutela; 11 urte zituela hiru hila-betez izan zen kartzelan. Herriko hamazazpi emakume daude gaur egun preso. Okerrena da erresistentzia ibilbide honetan herriko lau pertsona galdu ditugula.

Argi dago israeldarren errepresioa gurekin bereziki zitala eta bortitza dela, erresistentzia ez-bortitzaren aldeko hautua egin dugulako. Zigor eredugarria ezarri nahi digute, geure eskubideak defendatzeagatik euren etsai bilakatu gara, eta euren ustez zigor gogorra merezi dugu. Nabi Saleh herriaren aurkako errepresioaren bidez, erresistentzia ez-bortitzarekin bat egiteko tentatuta egon zitekeen edozein herri kikildu nahi dute.

Erresistentzia zuzen ez-bortitzeko estrategiak hamarkada luzeko ibilbidea dauka Palestinako hainbat herrian.

Guk 2009an ekin genion borroka honi. Erresistentzia ez-bortitza, baina, 2006an hasi zen; Bigarren Intifadaren testuinguruan; banaketa harresia eraikitzen hasi zirenean. Budrus izeneko herri batean hasi zen, eta handik Bil'in, Nil'in, Nabi Saleh, Kafr Qaddum eta beste hainbat tokitara zabaltzen. Erresistentzia ez-bortitzaren alde egin genuen Mendebaldeko herriei mezu bat helarazteko: kontua ez da zer ari ote garen egiten okupazioaren kontra, kontua da palestinarrok gure lurretan geratzea eta

gure eskubideen alde borrokatzearabaki dugula. Herri Erresistentziarako Batzordean elkarlanean antolatzen ditugu ekintzak. Talde bakoitzak bere komunitateko arazo konkretuei heltzen die, baina esperientziak partekatzen ditugu.

Adibidez, Bil'in herrian banaketa harresiaren kontra ari dira borrokan; Nabi Saleh herrian, berriz, lurren desjabetzearen kontra ari gara; Kafr Quaddum herrian 2000. urte-tik ari dira borrokan bertako sarbide guztiak itxi dizkietelako... Beraz, ez ditugu elkarren ereduak kopia-tzen, baina borroka esperientziak partekatu egiten ditugu: nola erantzuten dieten israeldarrek protestaldiei, nolako metodoak erabiltzen dituzten itaunketetan, zer gas negar eragile mota berri erabiltzen ari diren, tokian toki zer arma mota berri erabiltzen ari diren, nola gutxitu gure kontra erabiltzen dituzten arma berrien eragina...

Historiari erreparatzen badiogu, erresistentzia ez-bortitzak 11 urte inguruko ibilbidea baino ez dauka, baina nik badakit zerbait lortuko dugula. Izan ere, zenbait herritan, Budrus kasu, lortu dute eremuaren zati bat berreskuratzea. Bil'in herrian, esaterako, lortu dute banaketa harresiaren ibilbidea metro batzuk atzeratzea, aurreikusita zegoen tokiraino. Lorpen txikiak izan dira, baina oraindik ez dugu erdietsi garaipentzat har dezakegun al-daketarik. Garaipenik handiena izan da Palestina munduko arretaren jomugan jartzea, palestinarrek askatasunaren aldeko borrokarekin lot gaitzaten eta ez terrorismoarekin. Gero eta atzerriko talde gehi-go etortzen dira Palestinara geure burua defendatzeko eskubidea babestera. Aldaketa



AFP

«Amak izanagatik, sinisten dugu borrokatu ezean ezin izango diegula irakatsi belaunaldi berriei erresistentziaren espiritua. Ni beldur banaiz, beldurra baino ez diet irakatsiko seme-alabei»



sumatzen hasi gara mendebal-darren mentalitatean: gero eta urrats gehiago ematen ari dira Palestinako askapenaren alde eta gero eta ahots gehiago daude Israelgo okupazioaren kontra.

Nabi Saleh herriko erresistentzia nabarmendu da, gure kanpoko begiraleen ikuspuntutik behintzat, emakumeek jarrera aktibo eta protagonista daukatelako borrokan.

Erresistentzia hasi zenetik Palestinako emakumeek oso paper garrantzitsua jokatu dute eta erresistentzia mugimenduan buruzagi izan diren emakume askoren adibideak daude. Lehenengo Intifadan, kasu, oso nabarmena izan zen emakumeek jokatutako papera. Orduan, Intifadaren agintaritza bateratuaren kideetako bat

emakumea izan zen. Nabi Saleh herrian, komunitate txikia garenez, denok gara familia berekoak, dena partekatzen dugu. Erresistentzia ez-bortitzari ekitean ez zen inongo eztabaidarik izan emakumeek parte hartu behar ote zuten ala ez. Eztabaidak gure protestaldien estrategiei buruzkoak ziren. Herrian ekimenak antolatzen dituen zazpi laguneko batzordea dago, eta horietatik hiru emakumeak dira. Gauzak horrela, protestaldi ez-bortizetan parte hartzeak euren buruarenganako konfiantza ematen die Nabi Saleh herriko emakumeei, eta oro har, indartu egiten du emakumeen mugimendua Palestinan.

Gaur egun, Zisjordanian osoan ikus dezakegu emakumeen erresistentzia mugimendua; eta Jerusalem; eta 1948an

okupatutako eremuetan; eta Bethlehem, Jeninen, Nablusen... Nonahi. Gure borrokarekin bat egitearekin batera haiek ere Nabi Saleh herriko emakumeek hartu genuen bidea hartu dute. Noski, horrek eragin du israeldarrek zigor kolektiboa ezartzea herriari, bereziki emakume eta haurrei, erakusteko mugimenduan parte hartzen duen edozeinek larrutik ordainduko duela. Herriko hamazazpi emakume izan dira kartzelan; 60 edo 70 alditan eraso diete emakumeen protestaldiei, horietako hamarretan munizio asko erabiltuta, emakumeetako bat elbarri utzi dute... Amak izanagatik, sinisten dugu borrokatu ezean ezin izango diegula irakatsi belaunaldi berriei erresistentziaren espiritua. Ni beldur banaiz, beldurra baino ez diet irakatsiko seme-alabei, eta ahuldadea erakutsiko diot familiari. Beraz, erresistentziaren indarra eta boterea emakumeengan dago. Borroka emakumeen menpe dago, horrexegatik zuzentzen du okupazioak bere jazarpena emakumeen kontra.

Nabi Saleh herriko biztanleak, eta bereziki Tamimi familia, ezagunak dira munduan euren erresistentzia ekintzen bideoak eta irudiak sare sozialetan zabaltzeagatik.

Herrian erresistentzia ez-bortitzari ekin genionetik, argi genuen munduak Israeli ematen dion babesa hedabide eta prentsa agentzia erraldoien propagandaren emaitza dela. Nazioarteko agentzia nagusiek, Fox News, CNN edo BBC telebista kateek... israeldarrak biktima moduan erakusten dituzte, eta palestinarrek terrorista gisa. Badakite zer gertatzen ari den Palestinan, baina



AFP

«Gaur egun Tamimi familiako hogeï kide daude kartzelan. Gehienak anaia-arrebak dira, eta zenbaitek seme-alabak ere kartzelan dituzte; Ahed eta haren ama, kasu. Baina horrek indartsuago egiten gaitu, familia bezala eta herri bezala. Norbait espetxeratzen badute, beste hiruk helduko diote hark hasitako bideari»

interés bat daukate irudi hori emateko. Beraz, guk sare sozialetara jo dugu, modu erraza baita gure mezua zabaltzeko.

Bigarrenik, komunikabide alternatiboek ez dute mugarik, ezta informazioa zabaltzeko eragozpenik ere, inork ezin du ekidin. Eta hirugarrenik, sare sozialak belaunaldi berriek erabiltzen dituzte nagusiki, eta horiek badute pertsona izatea zer den jakiteko beharra, ikasten dituzte giza eskubideen urraketak identifikatzen, identifikatzen dituzte garbiketa etnikoa eta Israelgo okupazioak Palestinan ezartzen duen arrazismo erregimena. Horregatik, gure komunikabide agentzia propioa sortu dugu, Tamimi Press izenekoa; Nabi Saleh Solidarity izeneko bloga ere sortu dugu; eta Twitterren, Youtuben eta Facebooken ere bagaude; eta sare sozial guztietan. Halaber, nazioarteko ekintzaileei dei egiten hasi gara, Nabi Saleh herrira etor daitezela eta ber-

tatik bertara ikus dezatela errealitatea.

Okupazioaren zerbitzuek leporatzen digute propaganda egitea, errealitatea manipulatzen dugula, dokumentu horiek guztiak gezurra direla. Baina guk ez dugu gezurrik esan beharrik, aurrean daukaguna grabatu eta argitaratu besterik ez dugu egiten. Egiaren boterea daukagu, ez dugu gezurrik esan edo manipulatzen beharrik.

Azkenik, 2009etik aurrera eramaten ari garen borrokaren emaitza dira orain okupazio indarren partetik pairatzen ari garen erasoak, batez ere Ahed atxilotu zutenetik. Ikusi dugu nazioarte mailan protestaldi globalak izan direla Nabi Saleh herriarekin eta Tamimi familiarekin elkartzunean. Hamaika kanpaina antolatu dituzte: Free the Tamimi Women, Free the Tamimis... Kanpaina horiek gizarte zibileko ekintzaileek antolatu dituzte, baina baita legebil-

tzarkideek eta giza eskubideen aldeko erakundeek ere.

Badira sei hilabete Israelgo Armadak zure iloba, Ahed Tamimi, atxilotu zuela soldadu bati zaplazteko bat eman zioneko bideoa zabaltzeagatik. Orduan 16 urte zituen. Gerora haren ama ere atxilotu zuten... Zein da egoera egun?

Ahed 2017ko abenduan atxilotu zuten eta zortzi hilabetez kartzela zigorra ezarri zioten. Harekin izan naiz kartzelan, baita bere amarekin ere, eta ondo daude; ezin izan dute beren borondatea hautsi. Ahed eskolako azken urtean dago, eta oraintxe egin beharko zituzkeen bere azterketak eta ikaskideekin batera graduatu. Bera neska kementsua da, baina, noski, espetxean izateko esperientzia delikatu da harrentzat, izan ere, oraindik ume bat baino ez da. Eskarmentuak bizitza osorako eragingo dio. Esperientzia negatiboa izango da positiboa baino; hala ere,

esan beharra dago orain askoz adoretuago dagoela, konbentzituago bere borrokaz, zentratuago Palestina berreskuratzeko deman.

Ahed Tamimiren aferak aurrekaririk gabeko oihartzuna izan du nazioarte mailan eta arreta mediatikoa Palestina-ko umeen egoeran jarri du.

Erresistentziako emakumeak eta umeak etengabe zigortu egiten dituzte. Batzuei 15 edo 16 urteko zigor luzeak ezarri dizkiete, 14 edo 16 urte besterik ez zituztela. Israeldarrek badakite helduek okupazioaren aurka borrokatzeko hautua hartzen dutenean ondorioen jabe direla eta prest daudela horiei aurre egiteko; baina umeak zigortuz familia osoari eraso egiten badiote, Tamimi familiari bereziki, herri oso baten erresistentzia indargabetu dezakete. Dena dela, kontrako efektua lortzen ari dira, izan ere, Israelgo Administrazioaren jazarpenak erre-

sistentziari eusteko indarrak biderkatu baino ez dizkigu egiten.

Gaur egun Tamimi familiako hogeï kide daude kartzelan. Gehienak anaia-arrebak dira, eta zenbaitek seme-alabak ere kartzelan dituzte; Ahed eta haren ama, kasu. Baina horrek indartsuago egiten gaitu, familia bezala eta herri bezala. Norbait espetxeratzen badute, beste hiruk helduko diote hark hasitako bideari.

Egia da, halaber, beste leku batzuetan umeak espetxeratzen dituztenean edo zigortzen dituztenean, horrek erresistentzia indargabetzen duela. Baina uste dut emakume eta haurrak zigortzen jarraitzen badute, horrek mugimendu masiboa eragingo duela Palestina osoan. Azkenean, bortizkeria hori eta umeen eskubideen urraketak amaitu beharko dira, mundu mailako babesa izango da Palestinako borrokarekiko, inork ezin baitu onartu ume bati hiru urte-

«Latza da honetaz hitz egitea, gogorra da guretzat, baina egia gordina da: mendebaldarrek Ahedek soldaduari zaplaztekoa eman ziola ikusi zutenean, europar tipikoa irudikatzen zuen neskatila bat ikusi zuten. Izan ere, bera ilehoria da eta ez darama buruzapirik; errazago sentitu zuten harekiko enpatia»



AFP

ko kartzela zigorra ezartzerik soldadu bati harri bat jaurtitzegatik. Espero dugu Aheden aferak balio izango duela Palestinako umeen egoera nazioarteko iritzi publikoaren arretaren jomugan jartzeko eta haurren eskubideen urraketak gelditu daitezen.

Zure ustez, zergatik izan du horrenbesteko oihartzuna Ahed Tamimiren kasuak?

Ahed Palestinako neskatila arrunta da. Bizitza osoa okupazioaren menpe bizi izan da, senideak galdu izan ditu. Nabi Saleh herrian hasieratik genekien haurrak ere jomugan izango zirela; horregatik hasi ginen hurrei ere gure erresistentziaren esanahia irakasten, zergatik ari garen borrokan, zer esan nahi duen nork bere eskubideak defendatzea. Eskolak eta tailerrak antolatzen hasi ginen itaunketetan nola jokatu irakasteko, espetxeratuz gero nola jokatu irakasteko, umeak ere euren egoeraz jabe-

tu daitezen, eta, atxilotzen badituzte, euren eskubideak ezagut ditzaten. Zerbaiten inguruko informaziorik ez izateak ahulago egiten zaitu, baina prozedura osoa eta zure eskubideak ezagutzeak indartsuagoa bilakatzen zaitu. Hori argi ikusi dugu Aheden itaunketaren bideoan. Bera oso lasai zegoen, isilik galdeketa osoan; adierazpenik ez egiteko eskubidea baliatu zuen. Ezin izan zuten kikildu, areago, argi geratu zen itauntzaileek beldur handiagoa ziotela hari, neskatila bat baino ez bada ere.

Halaber, lan nekeza egin dugu Ahedena mundu mailako aferat mediatikoa izan zedin, eta horrela arreta mediatikoaren erdigunean okupazio erregimenak egiten dituen umeen eskubideen urraketak jartzeko. Hasiera-hasieratik argitaratu izan ditugu herrian gertatzen zenaren inguruko bideoak eta albisteak, eta orain kanpoko jendeak ezagutu egiten du Tamimi familia.

Bestalde, latza da honetaz hitz egitea, gogorra da guretzat, baina egia gordina da: mendebaldarrek Ahedek soldaduari zaplaztekoa eman ziola ikusi zutenean, europar tipikoa irudikatzen zuen neskatila bat ikusi zuten. Izan ere, bera ilehoria da, eta ez darama buruzapirik; errazago sentitu zuten harekiko enpatia. Hamaika mezu eta posta elektronikoko jasotutakoak, gisa honetakoak: «Nire alaba, biloba edota arreba izan balitz bezala sentitu nuen».

Ondo dago Aheden auziarekin kontzientzia piztea, baina, hala gertatu bada, izan da, neurri handi batean, berak europar itxura duelako. Eta hori ez da, inolaz ere, ume palestinar guztien itxura. Aitortu behar dut hori ez zitzaigula gus-tatu, baina inportanteena Aheden aferat ezagutaraztea zen, eta haren bitartez, emakume eta haur palestinarrek kartzelan pairatzen duten egoera erakustea.

Ahed Tamimi erresistentziaren ikur bilakatu izanak zer ondorio izan du palestinarren borrokarentzat? Eta Tamimi familiarentzat?

Argi dago bizitza honetan denak prezio bat daukala. Guk elkartasun eta babes maila handia lortu dugu nazioarte mailan, erresistentziari eusteko gure borondate irmoagatik, okupazio indarren etengabeko erasoei adorez egin diegulako aurre. Baina ordaina ere altua izan da: herriko lau gizon galdu ditugu... eta, bestalde, erantzun gogor eta bortitza ere pairatu dugu. Gero eta ugariagoak dira, kolonoen partetik, Nabi Saleh desagerrarazteko deiak, herria suntsitu eta alde egitera behartu nahi gaituzte. Exodo isila eragin nahi dute. Baina nazioarte mailan daukagun babesak indartu egiten gaitu, bakarrik ez gaudelako itxaropena ematen digu. Ezerk ezin izango du gure erresistentzia gelditu.

Israelgo egitasmoen artean Nabi Saleh desagerraraztea dagoela uste al duzu? Edo akaso palestinar guztiak ezabatzea Palestinako eremutik?

Bai, kolonoen aldarrikapenei kasu egiten badiezu, haiek Nabi Saleh desagerrarazteko deia egiten dute, baita Palestina desagerrarazteko ere. Izan ere, haientzat ez da existitzen "Palestina" izeneko herriarik. Haien ustez, gu, palestinarrok, Israel barruan bizi garen arabiarrek baino ez gara, eta, ondorioz, Jordaniara mugiarazi beharko gintuzkete. Sinistuta daude, zalantzarik gabe, lur hau Jainkoaren beraren aginduz dagokiela; jenderik gabeko lur bat zela, lurrik gabeko jendearentzat, eurentzat alegia. Baina hori ez da egia, Palestinako historia milaka urtekoa baita. Argi eta garbi ikus daiteke 1948an okupazioa hasi baino askoz lehenagotik ere bazela Palestina.



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Porlanezko lurraldea

Berriz ere, gertatzen ari da. Garabiek euskal herri eta hirien «skyline» edo profilak okupatu dituzte. Gaur egungo ekonomia-susperaldiaren irudikapen bilakatu dira, barne produktu gordinaren irabiagailu garaikide bihurtuta. Gertakari horren arrazoia hazkuntza gizarte-garapenarekin nahastu dugula da. Beste garai batzuetan, hirietako garabien presentziak gerrateen osteko suntsialdi egoeratik atera eta hasiera berri baten berrabiaraztea irudikatzen zuen. Izan ere, «eraikitze» hitza beste tesuinguruetan erabiltzen dugunean etorkizuna egiteko proposamen sendo batekin erlazionatzen dugu, gai material edo immaterial bati erreferentzia eginez.

Oraindik ere eraikuntza sektorea gizartearen tresna eraikitzailea dela ulertzetik urrun gaude. Horregatik euskal ekonomiaren produkzio logikan sartu dugu eraikuntza sektorea; metalurgiako torlojuak, armagintza, azpiegiturak eta eraikinak zaku berdinean. Baina, behingoz, ikas dezagun: hormigoiairen ekonomiari eredu aldaketarik ezartzen ez badiogu, egun aberatsak eta urte pobreak etorriko dira. Eta larriena da bitartean lurraldea porlanezko bilakatuko zaigula; eta porlanezko paisaia ez da elikagairik hazten, ezta animaliarik bizitzen ere.

Arkitektura praktikan eta arkitektura irakasten dugunon artean, gure eginkizunak suspertzen dituen –edo suspertu ditzakeen– lurralde-ekonomia eta politika ez dira maiz ezta-

baidagai izaten. Eraikuntza sektorearen norabidearen gaineko hausnarketak irribarre izoztuak eta deserosotasunak sortzen ditu arkitektoon gremioan. Samurragoa zaigu eraikuntzako xehetasunak edo espazio eraikuntza baten sublimazioa elkarbanatu, komunean duguna mundu materikoa eraikitzean balego lez. Nola kuestionatu, lagun dituzun arkitektoak Airbnb enpresarako lanean badira? Edo nazioarteko hotel entzutetsu batentzat edo burtsan gora eta gora doan arropa denda batentzat lanean direla, nola krisian jarri arkitektura-lan bikain bat egiteko aukera? Arkitekturako giza-konpromisoa espazio atseginak lortzera mugatzea, baina, ez ote da autokonplazentzian jardutea, diot nik...

Ezbairik gabe, eraikuntzaren ekonomia sektoreak etorkizuneko lurraldean paper handia jokatu du. Kontua da porlanezko lurraldea eraiki beharrean, klima aldaketak eragin ditzakeen hondamendiak ekiditeko eraikuntza nagusituko dela. Azken mendean asko, azkarregi eta gabezia handiekin eraiki da. Eraikuntzok energia subiranotasunerantz bideratutako eraikin izateko lanak egin beharko dira. Hiriak ere egokitu eta prestatu egin beharko dira klima aldaketaren erronkei begira –eta beraz plangintza beharrezkoa izango da–. «Eraiki» hitza osatzen joango gara: kenketaren operazioarekin, eraispenarekin, birnaturalizazioarekin lotuz. Porlanean aritzeko beste modu batzuk bilatzera behartuta izango gara, porlanezko bihurtu baino lehen. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Grande-Marlaska ez da bat-batean zalditik erori

Rosa Lluch eta Jon Irazolaren istorio eta bi- zipenek ez dute lotura posiblerik: izate- kotan, bien kasuak kontrako muturretan lirateke. Kataluniarrak duela hemezortzi urte galdu zuen aita, PSOEko ministro izandako Ernest, ETak tirokatuta. Eta eus- kaldunak 31 urte egin behar izan zituen erbestean, 2014an Elorriora itzuli arte. Bataren zein bestearen es- perientziak elkarrengandik hain urrun egonda, zer pentsatua eman dit azken asteotan batari zein bestea- ri GARArako elkarriketa egiterakoan hausnarketa oso antzekoa egin dutela. Denborari buruzkoa, alegia.

Kasualitate batzuk tarteko, Bartzelonako gune his- torikoaren erdi-erdian den Tinell aretoan izan nuen Rosa Lluhekin solasaldia. XIV. mendeko eraikina da, ikusgarria oso; ilunpean gordetako hormatzarrek ira- ganera itzularazten zaituzte (aipatzen da Cristobal Co- lonek agian bertan eman ziela buruan zuen bidaia- ren berri Errege-Erregina Katolikoei). Hunkituta zen oso Lluch leku hain bere- zian egon ahal izateagatik; izan ere, Erdi Aroko Histo- rian espezializatutako uni- bertsitate irakaslea da, eta garai hura bihotzean dara- ma, ofizioz eta afizioz. Hain ondo ezagutzen duen ikus- pegi historikoa baliatuz, begirada luze-luzearekin egin zion so Euskal Herriko egungo egoerari. «Prozesu his- torikoak ikaragarri luze eta geldoak dira, eta Euskal Herrian dena konpontzeko presa gehiegi ikusten dut, alde batekoen zein bestekoen aldetik. Zailak diren gauzek denbora behar dute, eta nekez azkar daitezke», esan zidan. Aitortzen dut elkarriketatzaileari kosta egin zitzaiola harridura gordetzea, azken urteotan gauzak geldoegi –etsipengarriki mantsoegi sarri– joan direla aski barneratuta baitugu.

Irazolarekin Donostian mintzatu nintzen, gaur Orion egingo den ekitaldiari begira. Ez da historialaria elorriarra, baina berea ere begirada luze eta sakona da ezinbestean, kanpoan bizitza erdia pasa ostean, sorte-

rrira itzuli ondoren ere erbestean edota deportazioan hamarkadak eta hamarkadak daramatzaten lagun- etxerako buelta errazteko ahaleginean buru belarri baitabil. Ba berak ere denbora izan du aipagai, pers- pektibaren beharra; 2013an Biarritzen plazaratutako bide orriari mesfidantzaz begiratu ziotela askok azal- du du –borroka urte latzenek barru-barruan txertatu- tako mesfidantza alegia– eta urteak –eta emaitzak– behar izan direla hori gainditzeko.

Esan ohi da politikan, bizitzan bezala, aldaketa ga- rrantzitsuenak guztiz saihestezinak diren arte ez dire- la gertatzen. Denborak heldutasun puntu bat eman behar die, zenbaitetan usteltze kiratsa nabaritzen hasi arte. Orain badirudi azkenean espetxe politikan infle- xio-puntua gerta daitekeela Estatu espainolean, eta ez da kasualitatearen fruitua izango, denbora eta baldin- tza egokiak sortu izanaren ondorioa baizik. Ez da Esta-

Politikan eta bizitzan, aldaketa handiak guztiz saihestezinak diren arte ez dira gertatzen. Heldutasuna behar dute, usteltzeraino iritsi arte zenbaitetan

tuaren nahiagatik izango, beharragatik baizik.

Saihestezintasun horren adibide gorena Barne mi- nistroa da. Komeni da gogoratzea 2005ean ETaren eta Zapatero presidentearen delegazioaren artean hitzar- tutako “zero puntua” delakoan presoan egoera hobe- tzeko edota atxilotetak bertan behera uzteko konpro- misoak izan bazirela, eta Fernando Grande-Marlaska izeneko epaile batek sabotatu zituela; eta 2011n Aiete- ko Adierazpenak planteatutako gatazkaren ondorioak gaindi ez zitezen ere boikotatzaile gisa jokatu zuela, torturaren aurrean ez-ikusiarrena eginez edo “Parot doktrinari” eutsiz. Orain ez da bat-bateko konbertsioa gertatu, Grande-Marlaska ez da zalditik erori; sorturi- ko baldintza berriek, eta denborak, bota dute. •

DISPERTSIO URTEAK BIZKARREAN

Kartzela urrunetara joan-etorriak eta urteak pilatzen

 **POLITIKA** / Amagoia Mujika Telleria

Dispersio urteak bestelako urteen desberdinak dira. Gehiago pisatzen dute bizkarrean. Milaka kilometro joan-etorrian, maite duzunaren faltak gorputzean egiten duen zuloa, urrun egoteak sortzen duen desanparoa, asteroko bisitaren kezka... Dispersio urteek, aurpegia baino, arima eta osasuna zimurtzen dituzte.

SIMONA ETA LUKI, IÑAKI GARCES BEITIA EUSKAL PRESOAREN GURASOAK. OTXANDIO

«Lukik eta biok hemen egon behar dugu Iñaki etortzen denean»



Marisol RAMIREZ | FOKU

Iñaki Garces Beitiak Otxandiotik alde egin zuenean, bere amak, Simonak, 53 urte zituen eta aitak, Lukik, 59. Orain 80 eta 86 urte dituzte dagoeneko eta 25 urte

baino gehiago daramatzate estatu espainola kartzelaz kartzela zeharkatzen. Herrera, Leon, Kordoba, Valdemoro, Huelva, Alama... Zerrendan baten bat faltako zaiola dio

Simonak. «Orain Zaragozan dago».

Bidaia gehienak autoz egin dituzte, biak bakarrik. Tarteka, baina, autobusean ere joan izan dira. «Betidanik

harategia izan dugu Otxandion eta bisitak, normalean, igandez egin izan ditugu, harategia ixten genuen eguna zelako. Autobusean normalean larunbatetako bisitak egiten dira eta horregatik askotan ezin autobusean joan». Simonak aitortu du autobuseko bidaia ipurdiko eta bizkarreko minez bukatzen duela. «Hori ez duzu jarriko ezta?», galdetu du umorez.

Hilero-hilero joaten dira, hutsik egin gabe. «Duela urte bi senarra oso gaixo egon zen eta uste dut orduan huts egin nuela hilabete batean. Baina, osterantzean, beti-beti joan gara semea ikustera hilean behin, vis-era. Ez dugu hutsik egin».

Duela gutxira arte, biak joan izan dira, Luki gidari eta Simona ondoan. Azken urteotan, baina, Lukik ezin du gidatu. «Kotxea hor daukagu, garajea. Herriko jendeak eramaten gaitu gure kotxean. Beti izaten da baten bat gu eramateko pronto. Guk kotxea daukagu eta gidaria behar izaten dugu. Orain arte, beti topatu dugu gu laguntzeko prest dagoen jendea. Gauza ederra da, baina erreparo pixka bat ematen digu. Gu eramatera joaten denak ezin du bisita egin, horretara bakarrik joaten da, gu eramatera. Eta han zain egon behar izaten du. Tira, horregatik ematen digu

erreparoa. Trukean bazkari on bat ematen diogu eta aurrera, denok pozik. Herrian elkartasun handia dago. Guretzat mesede itzela da eta horregatik apuratzan naiz ni pixka bat, asteburuko plana kentzen diogulako gidariari».

Bisitaren astea arraroa izaten da. «Ni oso urduri jartzen naiz, gero eta zaharrago, gero eta urduriago. Baina bidaia ez diot inoiz beldurrik izan. Luzea eta neketsua da, baina ez dit beldurrik ematen. Urduri jartzen naiz hara iritsi eta semea barruan utzi behar dudalako, beti barruan, beti barruan... horrek tristura handia ematen dit. Ilusioa, ikustearen poza, eta berriz han utzi behararen tristura, biak batera sentitzen ditut». Garbi hitz egiten du Simonak. Lukik, sofatik, hizketaldia jarraitzen du eta buruarekin baieztatzen ditu emaztearen hitzak. Duela bi urte oso gaixo egon zen, hilzorian, eta geroztik bere burua nahi baino motelago eta nahastuxeago dabil.

Hutsunearen presentzia erabatekoan bizi dira Simona eta Luki. «Senarrak orain askotan galdetzen dit: Badator Iñaki? Bihar etorriko da? Noiz etorriko da? Horrekin dabil orain buruan, etengabe». Simonak ez du Lukiren galderarik erantzun gabe uzten, galdera aldrebesa izanagatik, beti erantzuten dio, samur-samur.



Juanan RUIZ | FOKU

Eta semea gertuago balego?
«Hori sekulakoa litzateke. Pentsa, Gasteizen balego... aita gaixo zegoenean Zaballara ekarri zuten eta bisitan joan ginen pare bat bider. Oso ondo dago eta guretzako, pentsa, berrogei minutuko bidaia. Niretzat bidaia asko infernua izan dira, benetako infernua».

Bidaia horietako bat duela hamabost bat urte gertatu zen eta ondo gogoan daukate biek. «Luki makal samar ibili zen aste guztian, erdi gaixorik. Hankak lokartzen zitzaizkion eta indar gutxiarekin zebilen. Giharretan arazo bat zuen. Esan nion horrela ezin genuela bidaia egin, baina berak baietz. Valdemorora abiatu ginen, oso garaiz. Hala nola, baina iritsi ginen. Lukik ez zeukan indarrik ez hanketan eta ez eskuetan. Valdemorora oso goiz iritsi ginen, bisita baina bizpahiru ordu lehenago, eta funtzionarioari eskatu genion bisita aurreratzeko. Baina ezetz esan zigun. Tira, zain egon ginen eta egin genuen bisita. Baina Luki gero eta okerrago zegoen, ezin zuen ia gidatu eta, bueltakoan, gaueko hamaikak inguruan, errepideko ostatu batean geratu ginen, atsedean hartzeko. Iritsi, ordaindu eta gelara abiatu ginen. Hara sartu eta ohe gainean, estalki modura, bandera espainola. Hari begira geratu ginen biok. 'Zer, poliki-poliki abiatuko gara etxera, hemen lo egin gabe?'. Eta halaxe abiatu ginen Otxandiora. Astiro-astiro etorri ginen, Luki gero eta okerrago zegoen, ez zeukan abiadura aldatzeko indarrik ere. Hamar kilometrora geratu egiten ginen atsedean hartzera. Eguerdiko ordu

batak pasata iritsi ginen Otxandiora. Lasaitu ederra hartu nuen herria ikusi nuenean. A zer bidaia».

«DISPERTSIOAK ZAHARTU GAITU»

«Iñaki beti ondo egoten da gurekin, beti alai. Ez digu arazorik kontatzen eta guk ere ahalik eta gutxien. Nahikoa dauka han barruan». Hala ere, adineko gurasoek egin behar duten bidaiak kezka sortzen dio, hori ezin du ezkutatu. «Aspaldi honetan, Lukik ezin duenez ondo ibili, besteak baino beranduxeago iristen gara bisita gelara eta Iñaki beti kezkatuta egoten da, ez ote garen azalduko. Gainera, funtzionarioek ez diote inoiz azalpenik ematen, ez diote ezer esaten, ez diote azaltzen zergatik berandutu garen». Azken urteotan, 15 urteko bilobarekin –Iñakiren alabarekin– batera egiten dute bisita. «Alaba joaten denean, gu ikusle hutsak izaten gara. Oso gustura egoten gara aitaren eta alabaren arteko hizketaldia ikusten eta barre egiten dugu haien ateraldiekin. Guretzat plazera da hori ikustea», agertu du pozik Simonak.

*«Aspaldi honetan,
Lukik ezin duenez
ondo ibili, besteak
baino
beranduxeago
iristen gara bisita
gelara eta Iñaki beti
kezkatuta egoten
da, ez ote garen
azalduko. Eta
funtzionarioek ez
diote inoiz
azalpenik ematen»*

Tristura handiak pasatakoa izan arren, irribarre errazekoa da. Aurpegi argia dauka, 80 urte ondo eramanak. «Aurpegian zimurrak dauzkat, baina barrutik askoz gehiago zahartu nau dispertsioak. Nekatu egin nau. Lehen Luki eta biok presoan aldeko manifestazio

guztietara joaten ginen. Bilboko manifestazio handi horietan pozik sentitzen ginen; 'irabazi dugu', pentsatzen genuen. Orain gogo gutxiago daukagu. Luki ere makalago dago eta gutxiago joaten gara. Baina behar denean, joaten gara».

Nekatuta egonagatik, ilusiorik ez zaio falta. «Edozer mugimendu ikusita pizten zaigu ilusioa. 'Oraingoan bai, oraingoan ekarriko dituzte', pentsatzen dugu. Egia da itzali ere erraz eta azkar itzaltzen digutela ilusioa, baina hori ezin dugu galdu. Guk bizirik egon behar dugu Iñaki etxean ikusi arte. Luki ere ia joan zitzaigun duela bi urte, baina hemen dago, eusten. Lukik eta biok hemen egon behar dugu Iñaki etortzen denean».

Noiz arte egongo da? «Semeak esaten du atera arte han egongo dela. Ez digu ilusiorik sortu nahi».

Etortzen denean, buskentzak prestatuko dizkio amak. «Asko gustatzen zaizkio. Etxean zegoenean, zenbat jaten zituen! Alaba jaio zenean, Laudiora ekarri zuten neskatoa ezagutzera. Txipiroiak eta buskentzak

eraman nizkion jateko. Poliziek jakin minez begiratzen zuten zer jaten zuen, akordatzen naiz... Gero, duela bi urte aita oso gaixo jarri zen eta Gurutzetako ospitalera ekarri zuten. Ordubete lehenago abisatu zidaten ekarriko zutela eta ez nuen aukerarik izan handik mugitzeko. Baina gelan gerezi mordoan genuen, lagun batek ekarritakoak. Eta han egon zen Iñaki gereziak jan eta jan, denak bukatu arte. Behintzat aho zapore ona eraman zuen kartzelara bueltan».

Simonak badaki kartzelan ez duela etxeko gozotasunik eta jan ere eskas egiten duela. «Baina sekula ez da kexatzen, ez digu arazorik kontatzen, poza transmititzen digu».

Urteotan pasatu duen unerik latzena, baina, ez dauka ahazteko. Atxilotu zutenean tortura latzak jasan zituen semeak. «Madrila joan ginen bisitara. Han agertu zen, toki ilun-ilun batetik eta geldirik geratu zen, izututa. Berak ez zekien gu ginenik ere, ez zekien nor zuen zain atearen beste aldean. 'Geu gara, geu gara, Iñaki' esan genion eta gerturatu zen barrote ostetik. Aurpegia erabat belztuta zeukan. 'Ama, itzelak eman dizkidate' esan zidan eta bizkarraldea erakutsi zigun, dena ubelduta. Une hura ez zait ahaztuko, semea ez baitut inoiz hain izututa eta hain jota ikusi».

Simona eta Luki babestuta sentitzen dira. «Jendeak asko lagundu digu, batez ere gure egoera berdinean daudenek. Egia da egoera asko luzatu dela, jendea desmobilizatu egin dela, norberak bere arazoak dituela... eta guk presa daukagu, etxean nahi ditugu lehenbailehen».

PEPI, ALFONSO ETA MARIA JESUS, GORKA LORAN LAFOURCADE EUSKAL PRESOAREN AMA, AITA ETA IZEBA. HERNANI

«Guretzat senideen autobusa premiazkoa da, asko samurtzen du gure egoera eta hori ezin dugu galdu»

2003ko abenduan atxilotu zuten Gorka Loran Lafourcade. Geroztik, Soto, Valdemoro, Huelva eta Algecirasko kartzeletatik pasatu da. Gaur egun Algecirasko Botafuegos espetxean dago eta bere senideek Etxeratek antolatutako autobusean egiten dute bidaia. Ostiral arratsaldean abiatu eta igande goizean bueltatu. Kilometro eta ordu askoko joan-etorria da, baina aukera denetan onena da senideen autobusak eskaintzen diena. Hori oso garbi daukate.

Pepik (69 urte), Alfonsok (72 urte) eta Maria Jesusek (76 urte) bizkarrean hartuak dituzte hamabost dispertsio urte. Horiek bestelako urteak baino pisutsuagoak dira.

«Guk ez dugu gidatzen eta lehen beti norbaiten laguntza behar izaten genuen. Garai batean hegazkinez egiten genuen bidaia eta gero autobus bat bestearen atzetik eta taxiak hartzen genituen espetxera iritsi arte. Eromena. Sekulako estutasuna, garaiz iritsi beharraren estresa, hara eta hona korrika ibili beharra...», hasi da kontatzen Pepi.

Hala ere, beti iritsi izan dira. «Batzuetan oso-oso urduri, baina beti iritsi gara. Eta hori da garrantzitsuena. Korrika iritsi, aurpegi onena jarri eta barrura, semea ikustera», segitu du Alfonsok.

Badira hamar bat urte senideen autobusean bidaiatzen dutela. Azkenaldian, baina, gero eta bidaiari gutxiago biltzen da autobusera eta ekonomikoki kili-kolo dabil. Autobusak Algeciraseko joan-etorrian sortzen dituen gastuei aurre egiteko gutxienez 29 bidaiari behar ditu. Azkenaldian, baina, asteburu askotan ez da gutxieneko horretara iristen eta uneotan autobusaren zerbitzua defizitarioa da.

«Guk ezin dugu autobusa galdu. Guretzat oso garrantzitsua da. Orain, kartzelako ateraino bertaraino eramaten gaitu eta bidaia askoz lasaiagoa da. Badakigu garaiz iritsiko garela. Gidariak profesionalak dira, beren atsedean orduak egiten dituzte, geldialdiak egiten ditugu... egia da beti gertatu daitekeela zerbait. Baina, tira, guretzat senideen autobusa premiazkoa da», jarraitu du Pepik.

BABESTUA SENTITZEA

Autobusak badauka, gainera, beste alderdi garrantzitsu bat: taldearen babesa. «Autobusean goazen guztiok badakigu nora eta zertara goazen. Sevillan, Puerton eta Algecirasen egiten ditu geldialdiak. Familia handi bat bezala gara eta babestuta sentitzen gara. Edozer gauza gertatuta ere, ez gaude bakarrik, badaukagu nork

«Autobusean goazen guztiok badakigu nora eta zertara goazen. Sevillan, Puerton eta Algecirasen egiten ditu geldialdiak. Familia handi bat bezala gara eta babestuta sentitzen gara. Edozer gertatuta ere, badakigu laguntza izango dugula»

lagundu. Eta hori oso garrantzitsua da. Are gehiago adin batetik aurrera. Bidaia batean senide batek osasun arazo larri bat izan zuen eta berehala jaso zuen laguntza. Pentsa hori aireportu batean edo taxi batean bakarrik zaudela gertatzen baldin bazaizu... Niretzat autobusak ematen dizun babesa oso-oso garrantzitsua da senideentzat», esan du Maria Jesusek. «Asko kezkatzen gaitu autobusa galtzeko arriskuak. Guretzat ezinbestekoa da. 1.100 kilometro joanean eta beste 1.100 kilometro bueltan egiten ditugu Algecirasera. Bidaia hori auto batean egin beharrak sekulako beldurra ematen dit niri. Eta fisikoki ere, askoz nekeagoa da. Hegazkina, berriz, oso garestia da. Guk ezin dugu autobusa galdu», nabarmendu du Maria Jesusek.

Senidea autobusean sartzen denean, etxean bezala sentitzen da, nahiz eta etxetik 1.100 kilometrorra egon. «Algecirasen autobusean sartzen garenean, ja etxean sentitzen gara, seguru eta babestuta. Autobusari esker askoz kezka gutxiago ditugu. Baditugu kezkak –dispertsioak eta kartzelak sortzen dituenak– baina autobusak asko samurtzen du gure egoera. Estres eta antsietate asko kentzen digu autobusak», nabarmendu du Pepik.

Horregatik deia egin nahi diete senide eta lagunei,

bisitan joateko autobusa erabil dezaten.

«Dispertsioa senideei jartzen zaigun zigorra da, argi eta garbi. Presoak ere gaizki pasatzen du. Badaki oso urrutitik goazela, bidaia luzea eta neketsua dela... bisita bezperan Gorkak ez du lorik egiten. Oso urduri egoten da», kontatu du amak.

ASTEROKO TORTURA

«Presoarentzat asteroko tortura da, tortura latza. Itxaronaldi hori oso gogorra da. Bisitan sartu arte presoak ez daki senideak edo lagunak nolako bidaia egin duen. Euriarekin, elurrarekin, gauez, urduri... Eta berdin bueltako bidaiarekin. Hurrengo egunean egiten duen lehen gauza hori da, deitu eta ea ondo iritsi garen galdetzea. Berdin senideekin eta lagunekin, aste horretan bisitan joan zaionarekin. Zama hori oso gogorra da presoarentzat», iritzi dio Maria Jesusek. «Guretzat ere bisita astea berezia izaten da. Urdurixeago egoten gara. Niretzat oso gogorra da autobusean haurrak nola joaten diren ikustea. Hori krudelkeria latza iruditzen zait. Eta berdin adineko pertsonak. Batzuk lanak dituzte autobusera igotzeko, beste batzuek bidaia guztia eserita egiten dute, etzanez gero arnasa hartzeko arazoak dituztelako.... egoera gogorrek dira eta horrek



Jon URBE | FOKU

mugitu egiten zaitu», jarraitu du.

UNE ZELEBREAK

Autobuseko bidaiak baditu une zelebreak, umorerako ematen dutenak. «Pepi eta Maria Jesus artistak dira errepide bazterreko komunetan txukuntzen eta makillatzen. Puertoko taberna batean geratzen gara gosaltzera eta bertako komunean txukuntzen gara. Hara sartu eta goitik behera prest-prest ateratzen dira, bisitarako aurpegi onenarekin eta jantzi dotoreenekin. Garrantzitsua da Gorkak ondo gaudela ikustea. Gainera, oso behatzailea da eta azkar konturatzen da detaile horiekin. Barre pixka bat ere egiten du. Esaten digu

ezkontza baterako bezala prestatzen garela!», kontatu du umorez Alfonsok.

«Gorkak bisitetan ikusi gaitu zahartzen. Adineko pertsona batentzat urteek pisu handiagoa dute eta horrek kezka sortzen du presoarengan», dio Maria Jesusek. «Ilobak handitzen ari dira eta horrek ere pena handia ematen dio. Haien haurtzaroa galtzen ari dela sentitzen du...», zehaztu du Pepik hunkituta.

«OSO OKER ZEUDEN»

Dispertsioa diseinatu zutenek akaso pentsatuko zuten preso urrutiratuta bisitarik gabe utziko zutela. «Oso-oso oker zebiltzan. Dagoen tokira joango gara, baita munduaren ipurdira eramaten badute ere.

«Dispertsioak nekatu egiten du, zahartu egiten zaitu, antsietatea sortzen dizu... asko akordatzen zara semearekin, etengabe. Guretzat askoz hobea litzateke astero ikustea, lasaiago eta zoriontsuago geundeke. Baina Algecirasen egonda, nahiko lan»

Horretan ez izan zalantzarik», esan du tinko Pepik.

Egia da, hala ere, dispertsioak zama duela. Hori ezin da ukatu. «Dispertsioak nekatu egiten du, zahartu egiten zaitu, antsietatea sortzen dizu... asko akordatzen zara semearekin, etengabe. Guretzat askoz hobea litzateke astero ikustea, lasaiago eta zoriontsuago geundeke. Baina Algecirasen egonda, nahiko lan. Pentsa, Martutenen balego, autobusa hartu eta segituan joango nintzateke, kartzelako ateraino. Guk bi hilean behin ikusten dugu eta oso luzea egiten da», dio Alfonsok. «Gorkak ez du nahi guk horrelako bidaia luzea egitea 40 minutuko bisita egiteko.

Horregatik vis-era joaten gara, bi hilean behin. Beste vis-a bere anaiak, koinatak eta ilobek egiten dute», zehaztu du Pepi.

Azken asteotan Madrileko Gobernuaren ingurutik euskal preso en gaia inguruko hausnarketa desberdinak igartzen ari diren sentipena zabaltzen ari da. «Nik oso garbi daukat: ekintzak ikusi arte, ez dut ezer sinisten. Nik ekintzak ikusi behar ditut, hitzek ez didate ezertarako balio. Gaixo daudenak eta adinekoak askatzen hasten diren arte, ez dut ezer sinetsiko. Haien hitz politiek ez didate ezertarako balio». Pepik garbi dauka.

«Niretzat oso larria da euskal agintari batzuk preso senideen egoerarekin ez kezkatzea. Ba al dakite nola egiten ditugun bidaiak? Ba al dakite bidaiak zenbat kostatzen diren? Ba al dakite haurrek eta adinekoek ze egoera bizi dituzten? Asko hitz egiten dute, baina iruditzen zait benetan ez dakitela errealitatea nolakoa den. Asko hitz egiten dute, baina oso gutxi galdetzen digute senideei».

Gorka etxean espero dute bost urtean. «Lehenago, bada, askoz hobe, noski», dio Pepik. «Zigorra berrikusi eta 20 urteko kartzelaldia jarri ziotenean, nire bizitzako egunik zoriontsuenetakoa izan zen. Benetan. Guk orain planak egiten ditugu Gorkarekin. Nik ez nuen uste nire semea kalean ikusiko nuenik, lehenago hilko nintzela seguru nengoen. Orain, egun handi hori biziko dudaren itzaropena daukat, eta ilusioa», aitortu du Alfonsok.

JOSE CRUZ, «PITXU», EGOITZ COTO ETXEANDIAREN AITA. BARAKALDO

«Hemen batzuek iraganean hitz egiten dute eragindako minaz, baina guk orainaldian hitz egin behar dugu»



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Etxekoa kartzelan eta urrun izatea zer den zabal eta luze konta daiteke, baina «bizi egin behar da» zertaz ari garen benetan jabetzeko. Horrela iritzi dio Jose Cruz Coto, *Pitxu*, Egoitz Coto Etxeandia euskal presoaren aitak. Ia hamasei urte pasatu dira semea etxetik eraman zutenetik, eta, dioenez, etxekoentzat «gogorrena» Egoitz preso egotea da. Are mingarriagoa da, dioenez, jada zigorraren hiru laurdenak beteta dituenean eta kalean beharko lukeenean; baldintzapeko askatasunean, gutxienez.

Kartzelatu zutenetik Madril izan da Barakaldokoa

etxetik hurbilen izan den lekua. Navalcarnerotik, Darocatik eta Picasentetik pasatu da. Orain Granadan dago, etxetik 800 kilometro baino gehiagora, eta bisita bakoitzean 1.600 kilometro baino gehiago egin behar dituzte senideek eta lagunek joan-etorrian.

«Amaginarrebak zioen bezala, bagoaz hurbiltzen apurka-apurka, baina Afrikara», dio Pitxuk irribarre mingots batekin.

Amamaren etxean hartu zuten atxilo 39 urte betetzeko dituen Egoitz Coto. Orduantxe hasi zen sufrikarioa, kartzelaren inguruan sortzen den

«Beti izan da gogorra, baina gu hamasei urte zaharragoak gara eta denborak pisua gaineratzen dio egoerari»

egonezina eta kezka, kontua ez baita bakarrik askatasuna galtzea, baizik eta giza eskubideak eta bestelako berme demokratikoak ziurtatzen ez dituen sistema batean egitea. Ez du hitzekin esaten, baina harresien bestaldean presoaren kontrolpean ez dauden egoerak sor daitezkeela jakin badaki Pitxuk. Eta nork babesten du presoaren ondoan kideak ez baditu?

Bidaia, kartzela... kezka horiekin azken hamasei urteotan bizitza berri bat eratu behar izan dutela adierazi du barakaldarrak. Pitxuk dioenez, orduetik kartzelako bisitak daude

erdigunean, eta gainontzekoa horien inguruan antolatzen da. «Beti izan da gogorra, baina gu hamasei urte zaharragoak gara eta denborak pisua gaineratzen dio egoerari», aitortu du. Hala ere, argi esaten du politikariak dagoeneko konturatuko zirela oztopo guztien gainetik eta azken arnasarekin bada ere, senideek ez dutela bisitetan huts egingo. Nabarmentzen duenez, ez da inoiz samurra izan, baina une batzuetan oso baldintza gogorretan egin behar izan dituzte bidaia, indarrak mugetaraino eramanez. 67 urte ditu barakaldarrak eta gaixotasun larria badu ere, ez du solasaldia bere osasun egoeraren ingurura eraman nahi. Dioen bakarra da batzuetan «gorriak pasatuta» lortu duela kartzelara iristea, baina azken une horrekin soilik geratu nahi duela, hau da, semea ikusi ahal izan duen unearekin.

Lehen amamaren bidaia luzeak ziren kezka nagusia. Azkenekoz bisitara eraman zutenean, egunak eman behar izan zituzten ibilbidea osatu ahal izateko. Gorpildun aulkian zegoen amama, Pitxuk gogoratzen duenez. Zaila izan zen, baina oso harreman berezia zuten amamak eta ilobak eta bisita hura galdu ezin zen une berezia zen. Orain sei urteko biloba dute eta hura ere bidaia luzeetara behartuta dago. Joan-etorrien zama ahal den neurrian samurtu eta

ANA PEREDA GARCIA DE OLANO ETA IXONE LEGORBURU MADINABEITIA, MEDIKUA ETA PSIKOLOGOA

«Senideek bizi duten estres egoera oso kaltegarria da, batez ere adinduentzat»

aitarekin bizi ahal dituen une eskas horiek bermatzea da orain aitite-amamaren helburu nagusia. «Bientzat hain da une berezia... eta gu pozik gaude horrekin», azaldu du irribarre gozo batekin.

ESKUBIDE KONTUA

«Badakigu zergatik egiten diguten hau, guri xantaia egiten digute presoan urrutzearekin eta haiei xantaia egiten diete gurekin», dio garbi. «Ahalik eta min handiena ematen saiatzen dira, bisitak zailtzea eta, batez ere, presoak beren inguru afektibo eta kulturaletatik deserrotzea bilatzen dute. Baina ez dute lortzen, hor gaudelako gu, senideak, lagunak...».

Atentzioa ematen dio prozesu judizialetan presoak ez daudela «hain txarto bisitak dituztelako» entzuten duenean. «Badaude harreman pertsonalak, afektiboak eta kulturalak nola zaildu pentsatzen eta programatzen aritzen diren pertsonak», esan du. «Honekin guztiarekin bukatzeko neurria edozein momentutan aktibatu ahal da; haiek eskubideak dituzte eta guk ere eskubideak ditugu».

Hamasei urtean gauza asko gertatzen dira pertsonon bizitzan, baina semea ikusteko «nahia eta beharra» ez dira aldatu Pitxurenean, zenbait unetan «oso zaila» izan den arren hori gauzatzea. «Semea ikusteari ere utzi behar izan diot», aitortu du Pitxuk, keinua gogortuz. Kimioterapia eta erradioterapia tratamenduek eragindako ondorioek ezinezko egin zuten zenbait unetan bidaia luzeei ekitea. Une larriotan, indarrez

sentitu eta bidaiari eusteko beste energia sentitu duenean, ez du zalantzarik izan. Oxigenoko makinarekin bidaiatu behar izan du: «24 ordu autoan oxigeno kontzentratuekin». Gogorra izan da: osasunak okerrera egitearen beldurra, bisitara ez iristeko beldurra, bidaiaren lekuren batean ospitaleratu behar izatearen kezka... Baina, nabarmendu duenez, «handiagoa izan da iritsi eta semearekin egoteko ilusioa».

Urte luzeotan zenbait istripu izan dituzte: «Basurdeen gainetik pasatu gara, azeri batekin autoa iraultzeko zorian egon ginen... Ez dira bidaia normalak, ez dira turismoko bidaiak, ordu zehatz batean heltzearen presioarekin zoaz beti. Kalkulatu behar duzu irtetean denbora nahikoa izatea, irteerak ordu zehatz batean izan behar dira eta ez beste edozeinetan... Bidaia hegazkinez, trenez, autobusez edo autoz egiten baduzu, kalkulatu behar duzu beharrezkoa den denbora garaiz heltzeko, eta hori zure bizitzaren erdigunea bilakatzen da. Beste guztia horren inguruan planifikatzen da».

Sufrimenduak tamaina itzela hartu du eta ehunka lagunengan eragin zuzena izan du azken 30 urteotan: heriotzak, zauriak, estresa, kezka, gaixotasunak, zama ekonomikoa... «Epaietan kartzela zigorra jartzen du, ez urrun egotea», nabarmendu du. «Hemen batzuek iraganean hitz egiten dute eragindako minaz, baina guk orainaldian hitz egin behar dugu».

Bidaiatzeak berezko arrisku bat darama berekin; zenbat eta maizago, orduan eta handiagoa. Handia da euskal preso politikoen senideen kasuan, eta haietako askok urte luzeak, hamarkadak eman dituzte ehunka kilometroko bidaiak egiten. Urteetan aurrera doazela, gainera, arrisku horri gaixotzeko edo euren gaixotasunak okerrera egiteko arriskua ere gehitzen zaie.

Euskal presoan gurasoen %98k 60 urtetik gora dituzte, eta horietako gehienek 70 urtetik gora. Gehiengo handia dira, halaber, senide presoak bisitatzeko 10 eta 30 urte bitartean nahitazko bidaia luze horiek egiten ibili

direnak. Eta asko bisitak egiteari uztera behartu dituzte adinak edota gaixotasunek. EAEko datuen arabera, «adinduek gaixotasun kronikoen prebalentzia handiko kolektiboa osatzen dute. 65 urte baino gehiagoko %85ek gaixotasun kroniko bat dute, adinak aurrera egin ahala handiagotzen dena».

Etixerat elkarteak «Urrunketa: kalte eta eraginak adin nagusiko pertsonengan» dosierra egin zuen orain aspaldi ez dela. Haren oinarria Ana Pereda Garcia de Olano medikuaren eta Ixone Legorburu Madinabeitia psikologoaren txostenak dira, osasun alorreko 30

profesionalek babestuak. Ana Peredak dioenez, adinduentzat oro har bidaia luze horiek kaltegarriak dira. Gaixorik dagoen edozeinek «gaixotasunak txarrera egiteko eta konplikazio berriak agertzeko arriskua du». Beraz, bidaia derrigor egin behar dutenek saihetsezinezko arriskua dute. «Asko eta asko bidaia egiteko aukera barik geratzen dira, dauzkaten osasun arazoak direla-eta ezin diotelako horrelako bidaia luze bati aurre egin». Bidaia egiteko modua dutenak «pribilegiatuak» direla dio, ironia triste batez. Baina bidaia egin gabe geratzen direnen egoera ere ez da



Nerea Goti

osasunarentzat onuragarria. «Egoera horrek batez ere eragin psikologiko negatiboa du. Alderdi hori Ixonek azalduko dizu hobeto, baina senitarteko bat urrun izanda, kasu askotan urteak eta urteak ikusi barik egotea oso kaltegarria da osasun psikikoarentzat».

Senideak oro har estres handiko egoeran bizi direla dio Peredak, eta estresak eragin oso kaltegarria duela, bereziki adinekoengan. «Senidea etxetik gertuko espetxe batean edukitzeak neurri batean saihestuko luke gehiegizko estres hori. Neurri batean, zeren bisita berez estresagarria da. Baina etxetik gertu izanda, gutxienez bidaiak sortzen duen estresa saihestuko litzateke».

Presoak urruntzeak kolektibo ahulenak kaltetzen ditu gehien: umeak, gaixorik daudenak eta adinduak. «Batzuetan ahaztu egiten zaigu bai presoen bai senideen adina», dio, eta txostenaren ondorioak kontuan izanda, presoak etxera gerturatzeak kolektibo horientzat izango litzatekeen onurak nabarmendu nahi ditu: «Hasteko, jende gehiagok bisita egin ahal izatea, hainbeste kilometro egin ezin dituzten lagun horiek ere beren senideak ikusi ahal izatea, eta bisitan maizago joateko aukera ere izango lukete denek. Halaber, pertsona horiek, hala behar izanez, gero, hemengo mediku batek artatuak izan litezke, mediku horrek hobeto ulertuko luke arazoa eta historia klinikoa eskuragarri izango luke, oso komenigarria dena. Eta denentzat beren patologia okerrera egiteko arriskuak txikiagoak izango lirateke, zirkulazio edo orientazio arazoak...».

Ez dago euskal presoen adineko senideen egoeraren gaineko ikerketarik, eta faltan sumatzen du Peredak, esate baterako, umeen kasuan bezala. «Nik atera ditudan ondorioak bidaia luzei buruzkoak dira, bidaia horiek adineko jendearengan dituzten eraginak, baina ez espresuki euskal presoen senideei dagokienez». Datu horiek estrapolatu egin ditu euskal presoen senideen arazora. Kasu horretan, orde, kalteak handiagoak dira: «Egiten dituzten bidaiak ez dira oporretakoak edo atsegin bidaiak».

EZINEGONA ETA INPOTENTZIA

Ixone Legorburu psikologoak ere, «egoera hori bizi duten adindu eta pertsona gaixoengan zer-nolako eraginak dituen modu zehatz eta sakonean aztertuko dituen lan bat» ezinbestekoa dela uste

«Adinekoei oso inpotentzia handia eragiten die senide presoak ikustera ezin joateak. Gainera, ez dakite noiz izango duten senidea ikusteko aukera, eta badakite beharbada ezin izango dutela sekula ikusi. Beldur hori hor dago, bai barruan dagoenarentzat, bai senideentzat»»

du. Bere txostenean, «eremu klinikoak maila teoriko zein praktikoan ematen digun jakituriaz gain, senideen eremuan egindako elkarriketa bakanek eskaintzen digute informazioa».

Esan bezala, osasun arrisku nabarmena dakarkie bidaia luze horiek egiten dituzten adinduei, baina horiek egin ezin dituztenei ere bai, batez ere psikologikoki. «Nabarmena da jende horrek daukan ezinegona. Nahi eta ezin. ‘Nik dudan adinarekin ezin dut hainbeste kilometro egin’, diote, baina, beren senideak hemen ondoan egongo balira, joango lirateke. Orduan, oso inpotentzia handia eragiten die horrek. Gainera, ez dakite noiz izango duten senidea ikusteko aukera, eta badakite beharbada ezin izango dutela sekula ikusi. Estura eta inpotentzia ikaragarria sortzen die egoera horrek. Beldur hori hor dago,

bai barruan dagoenarentzat, bai senideentzat».

Badaude, halaber, gaixorik ez daudenak, baina adinduak izanda, arrisku handiagoa dute gaixotzeko. Legorburuk garrantzi handia ematen dio errutinari: «Adin horretan errutina funtsezkoa da. Adinarekin oso errutinario bihurtzen gara. Umetan errutina behar dugu, eta helduaroan eta zahartzaroan ere bai». Txostenean dioenez, hirugarren adineko errutina egoki baten garapenerako, garrantzitsua da adindua bizi izan den inguru fisiko, familiar eta sozialean egotea, eta bere bizitza osatu duten objektu, pertsona eta tokiekiko harremanak errespetatzea. Gainera, aukeratzen dituen jarduerak bere egoera fisikoa eta osasunarekin lotuak, seguruak, egingarriak, egokiak, atseginak eta dibertigarriak izan behar dira. «Egoera horretan, errutina hori erabat apurtzen da –dio Legorburuk–. Bidaian askotan ezin dute geldialdirik egin pastilla bat hartzeko, komunera joateko, edo lo-kuluxka behar den bezala egiteko. Desoreka handia ekartzen die bidaiak, baita antsietatea, urduritasuna eta estresa ere».

Peredak bezala, estresaren eragin kaltegarria azpimarratzen du. Edozein adinetan kaltegarria da, baina adin horretan, areago. «Bai, horrek gaixotasun bat azelera dezake, loa eta atsedena kaltetu, eta haien ezinegona etengabea da: helduko diren edo ez pentsatzen, garaiz helduko diren, istripurik izango ote duten, sartzen utziko dieten... Hori guztia buruan etengabe».



7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



SPLIT

Kondaira eta ipuin zaharretatik aterea

Hamasei mende geroago, turistek erromatar soldaduei lekukoa hartu diete, Kroaziako hiri honi darion historiak, klimak, edo "Game of Thrones" filmatzeko erabilitako jokalekuak erakarrira.

Eta gainera: Munduaren azken muturreko uhartea, Tasmania • Portugaleko gazteluetan barna

• Gai nekogorta, mendia hirian • Uztail eta abuztuko jaialdi eta festen zerrenda zehatza...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Bidaia batean bezala

Lagunak esan dit gure burua programatuta da-goela ikasturte bat irauteko. Horregatik, seguru-
enik, hezitzaileak, ikasleak eta hezkuntza-
ren bueltan gabiltzan gehien-gehienak guztiz
akituta eta umore txarreko ibili gara azken
egunotan.

Antz handia du ikasturte batek bidaia luze batekin; bi-
daiak bezala, hainbat fase ditu. Hasieran, dena da emozio
eta irrika: bidaide berriak, lagunak egitea, nola moldatuko
ote naizen haien artean... dena da zoragarria. Gero, elkar
ezagutu dugunean, basamortuko zeharkaldia etorriko da:
elkarbizitzaren zailtasuna, egunerokoaren monotonia, albo-
koa jasan beharra. Nekea agertuko da, orduan. Eta, azkenik,
zirt edo zart egitekoa: hau amaitzera doa, ez da betirako...
eta hor dator ere oporretarako zenbat falta den zehatz-me-
hatz kontatzen hasten garen unea.

Horregatik, bidaia luze batean gertatzen den bezala, har-
gatik edo honengatik, epe mugaz haratago luzatu beharko
balitz ikasturtea, animikoki oso nekeza litzateke epe mugaz
haratago jarraitzea, bidaia luze batean bezala, burua egun
jakin baterako programatuta baitago.

**Egutegiari eta kalkuluei hutsik egin gabe, amaitu da 2017/2018 ikasturtea Euskal He-
rriko heziguneetan. Azken asteetako erome-
naren ondoren, isiltasuna gailendu da, dago-
eneko, ikasgeletan.** Orain, beste kontu
batzuetan murgiltzeko tenorea heldu da. Baina
ez dezagun ahaztu irakasleak ez diren beste
hainbat langilek, eta denok gara hezigunean es-
kaintzen den hezkuntzaren parte, beste aste ba-
tzuez jarraitu beharko dutela, oraindik ere, lan
isilean.

Azken asteetako zoramena baretuta, senti-
mentu gazi-gozoa sortu da nire baitan. Gozoa,
udako atsedenaldira desiratua iritsi delako, noski.
Eta gazia, sufrimendu handia nabaritu dudala-
ko nire inguruan ikasturte amaieran, sekula ez
bezalakoa. Ezinean zebiltzan neska-mutilena,
haien inguruan dauden etxekoena, hezitzaile
desengainatuena... Kezkek eta zalantzek ez dute
adinik izan.

Izan ere, ez da erabaki samurra ezta gozoa
ere, neskato edo mutiko batek ikasturtea erre-
pikatu behar duen ala ez deliberatzea, hain da
zaila zer gertatuko den iragartzea, zer den zuzene-
na asmatzea!

Ikasturteak gaintzea edo curriculumetan
ezarri ditugun eskakizunetara azken momen-

tuan ozta-ozta iristea lortu duten neska-mutilak izan ditut
inguruan. Azken asteetan haiek salbatzeko ahalegin neurte-
zina egin duten etxekoak eta haien desesperazioa ikusi di-
tut. Eta lubakiaren alde honetan gauden hezitzaileen zalan-
tzak eta ondoeza sentitu ditut.

Kezkatu egin naute biziki egoera horiek guztiek, eta zer
pentsa ere eman didate. Huheziko irakasle den Alex Baran-
diaranek Ebaluazioaren gaineko jardunaldi batean esanda-
koek egin dute salto nire gogora: «Heziguneetan nola bizi
garen, zoriotsuak ote garen, ebaluatu beharko genuke».

Ez litzateke erronka makala hurrengo ikasturtean, gure
heziguneetan, bakoitza dagoen lekutik, eskolan nola bizi ga-
ren eta ikasturtea nola bizi dugun ebaluatzea. Akaso, neska-
mutil, etxeko, hezitzaile izan, gure txikitik, eraiki nahi du-
gun (edo amestu esan beharko dugu?) Hezkuntza
Sistemaren oinarri humanoenak jartzen ariko gara.

Usteak uste, bidaia guztietan bezala, gu ere heldu gara
helmugara.

Opor eta atsedeen egun politak izan ditzazuela! •



Iritsi da udako atsedenaldira desiratua. Isiltasuna gailendu da ikasgeletan. GAUR8

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Sanferminak bizipoza dira

Norberarentzat herriko, are auzoko, jaiak dira munduko jairik onenak. Txikitatik bizi izan diren jaiak dira bizipen sakonak lagatzen dizkigutenak. Zergatik? Aske sentitzen zaren lehen aldia da, egunerokotasunetik ateratzeko lizentzia ematen digute, espazio bera bizi dugu baino dinamika transgresoreaz, ordutegia eta harremanak malguagoak dira, betiko ezagunekin harreman ezberdinak ditugu, eta ezezagunekin harreman intentsuak sortzen ditugu denbora laburrean.

Jaiak dira konbentzioa apurtzeko eremu askea, nahiz eta konbentzio propioak dituen, gordetzeko tradizioak, ohitura autoinposatuak: honelako janzkera, halako jatordua, ordutegi zehatza ekimen bat ala beste egiteko. Jaietan urtero gauza berberak errepikatu egiten dira eta beti dira berriak: batetik besterako ibilbide alaitsua, musika zehatza, dantza mota berezitua.

Eskarmentu handia dugu euskal herrietan jaien kontura. Mendez mende iraun duten tradizioak segitzen ditugu atzo goizean asmatutakoak balira bezalako freskotasunarekin eta, aldi berean, tradizio berriak sortzen ditugu urte batetik bestera, ordutik aurrera urtez urte errepikatuko direnak: Pijama Eguna Algortako

Portu Zaharrean, esaterako, urte gutxiko kontua da, baina egun pentsaezina litzateke “tradizio” horri “trazizio” egitea jaietako azken egunean mahoizko arropa jantzita. Gizonezkoak kamisoiarekin ikusiko dituzu kaleari goizetik gauera, eta emakumeak pijamaz jantzita.

Marijaiak 40 urte ditu bakarrik, Mari Puri Herrero eskultoreak sortu baitzuen 1978an. Bilboko jaiak instituzionalak izatetik herrikoiak izatera pasatu zirenean orduko gazteak “jai”-aren sinbolo bat sortu nahi izan zuten eta Herrerori egin zioten enkargua.

Sanferminen tradizioa dezente zaharragoa da, XIV. mendean kokatu baitaiteke jaiaren hastapena. Jai berriak eta jai zaharrak ditugu, beraz, euskal herrietan.

Baina batzuk eta besteak gehien bereizten dituen elementua ez da historia edo antzinakotasuna, baizik eta antolaketa.

Zerbait ikasi badugu azken garaietan da jaiaren funtsa dela partaideen identifikazioa festejoarekin. Eta zenbat eta hurbilagotik bizi antolaketa, are eta handiagoa da identifikazioa. Herri batzordeak funtsezko elementu dira, haiei esker hazi egiten baitira jaiak: programak herritarren nahietara egokitzen dira eta partaideek zeresana dute prozesu osoan, diseinua egitetik azken parrandarin.

Sanferminek, gainera, badute plusa. Sarritan saiatu naiz azaltzen adiskide bizkaitarrei zergatik diren horren garrantzitsuak sanferminak nafarrantzat, baina alferrik. Egia da edozein jairekin elementu komunak dituztela. Egia da hainbat herri eta auzotan bizi daitezkeela poza, algara, dantza eta musika, buruhandiak eta

Sanferminak ezagutzen ez dituztenek nahastu egiten dute kaosaren irudia «edozer» egiteko lizentziarekin. Eta, noski, ez du zerikusirik. Barneko alaitasunak berezkoa duelako errespetua

erraldoiak, sokamuturra, txosnak eta kontzertuak. Sanferminetan, ordea, badago kode tazitua, idatzi gabeko araua, gutxitan (oso gutxitan) apurtzen dena: jaia ez dago kanpoan, jaia zure barnean dago, zerorrek egiten duzu festa, programak ez du sorrarazten algara, algara norberak darama barnean eta eskaintzen dio jaiari.

Jaia kanpotik (“*en exterioridad*”) biziz gero, irudia kaosarena da. Sanferminak ezagutzen ez dituztenek nahastu egiten dute kaosaren irudia “edozer” egiteko lizentziarekin. Eta, noski, ez du zerikusirik. Barneko alaitasunak berezkoa duelako errespetua: nik gozatzeko moduan, nahi dut zeuk ere gozatzea, aske, solte, pozik, alai. Ez da kaosa, bizipoza da. •



EXPRAI

iRRITZIA:

DANTZATZERIK
EZ BADUT,
EZ DA NIRE
IRAULTZA



EXPRAI
2018

SANFERMIN
ITZELAK
GUZTONTZAT!!

Eremu bitala

Mirari Martiarena
Iraola

Hasi dira sanferminak. Munduko festa garrantzitsuenak askorentzat, eta, garrantzitsuenak ez badira, ezagunenak bai behintzat. Bederatzi egunez Iruñea munduaren erdigune bihurtzen da, festa eta parrandaren epizentro.

Hamar urte pasa diren arren, atzo bezala gogoratzen dut Nagore Laffagren hilketaren berri jakin nuen momentua. Barruak eman zidan zartakoa, mina. Amorrua sentitu nuen Diego Yllanesi ezarritako zigorraren berri ja-

kin nuenean eta urte gutxiren buruan libre zegoela jakindakoan. Zartako, amorru eta min bera sentitu nituen *La Manada*-koek egindakoa jakin nuenean, eta justizia beste behin ere itsua dela ikusita negar egin nuen.

Iruñeko sanferminetako gertaera horiek emakumeok jasaten ditugun eraso- en icebergaren punta besterik ez dira. Aste honetan behin eta berriz nire inguruan entzun eta irakurri dudana esaldia da. Denok ezagutzen dugulako etxean erasoak jasan dituen, “lagun”

artean, auzoko edo herriko festetan. Ez da hiri handietako kontua bakarrik, eraso sexistak, abusuak, ingurura begiratu eta eguneko edozein momentutan jasan ditzakegu. Eta ez guke beldurrik izan behar ikusten duguna salatzeke, gure eremu bitalari eraso egin diotela sentitzen dugun momentuan ahotsa altxa, kexatu edo oihu egiteko. Bai, egongo da sinetsiko gaituen ahizparik eta lagunduko digute etxerako bidean, kalean, parrandan... aske izaten eta ez ausart. •

Ez dezatela mezularia hil

Koldo Sagasti

Hipokrates medikuntzako historiako osagilerik nagusiatakoa izan zen. Kristo aurreko laugarren mendean mediku jardueraren printzipio etikoak ekarri zituen zin hipokratikora. Adierazpen haren testuak jasotzen du, besteak beste, sendagileak errespetua zor diola maisuari, harekin partekatuko dituela bere ondasunak, familiatzat hartuko dituela haren semeak, eta doako formakuntza eskainiko diela medikuntzaren jakintzan. Bi mila urtetik gora pasa dira zientzialari greziarrak mendede-kate hori abian jarri zuenetik; eta

gaur egun arte, belaunaldiz belaunaldi, fakultatean lizentziatutako medikugai berriak zin emate horri atxiki zaizkio.

Juramentuak, nonbait, elite bateko kide egiten ditu sinatzaileak. Medikuntza ikasle garaian beti susmatu nuen itun horren emaitza ez ote zen sendagileen seme-alabak matrikula ordaintzetik salbuetsita izatea. Halaxe izan da beti, Hipokratesen garaietatik.

Arazoa sortu da aukeratuen kasta hori administrazio publikoko funtzionario bilakatu denean, eta langileen seme-alabek ordura arte pribilegia-

tuentzat erreserbatutako formakuntza jasotzeko aukera izan dutenean.

Gauza guztiz jakina zen aspaldi Osakidetzan medikuntzako oposizioetan alferrikakoa zela ikastea, lanpostu banaketa mesede-gurpil horretako kideentzat erreserbatuta zegoela. Inork ez zuen kolokan jartzen, harik eta hiru osagilek isiltasuna apurtzea erabaki duten arte. Salatariek adierazi dute prentsa aurrean beldurrez daudela jasaten ari diren mehatxuengatik. Babestu egin behar ditugu hiru ausart horiek, osasun sistemaren higieagatik, gure osasunagatik. •



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan


Sexua purgatzeko

Sexua kontzeptu polise-mikoa da eta honi buruz jarduten dugunean leku desberdinetatik abiatzen gara; garen sexutik, egiten dugun sexutik edota

dugun sexutik. Hala nola, ondorengoak aipatzen ditugu: bart sexua ukitu zidaten, gaur sexua izan dut, bestean zein sexukoa naizen galdetu zidaten, sexuan besterik ezin dut pentsatu... Epistemologia sexologikotik, sexua ez da genitalekin egiten duguna, baizik eta garena, emakumea ala gizona izatea horrela sentitzen eta deskubritzen dugulako. Sexuak izaki sexudunak bihurtzen gaitu, eta, diferentziatzen gaituen heinean, gure artean ere topaketak eragiten ditu: interakzioak, atrakzioak, maitemintzeak, irrikak eta sinergiak. Hau da, pertsona guztiak sexudunak gara, aurkakoa ezinezkoa baita.

Sexuak dimentsio bio-psiko-soziala dauka, ondorioz, emakume eta gizon bakoitza bere biologiaren, kulturaren (heziketaren) eta biografiaren produktu bat da. Hiru atal horiek une oro eta etengabe eragiten diote elkarri. Horrenbestez, pertsona ororen identitatea markatzen du sexuak eta gizaki bakar eta errepikaezinak sortzen ditu. Labur-labur esanda, sexua kontzeptu izugarri irekia eta konplexua da eta aniztasuna sorrarazten du maila guztietan. Emakumeek bizarra edukitzea, mutilek alua izatea, neskei neskak gustatzea, emakumeak XY izatea, gizonak luma edukitzea, emakumeak hedonikoak izatea, gizonak BDSMa (lehen sadomasokismo bezala ezagutua) praktikatzeko, eta abar, aniztasunaren ondorio naturala da.

Sexualitatea, sexuaren kalitatea, jaiotzetik hil arte dugun giza dimentsio bat da. Gorputz osoan kokatzen da, ondo sentitzeko, gozatzeko eta adierazteko balio du eta bakoitzak be-



Pertsona bezainbeste sexualitate eta emakume eta gizon izateko modu daude. GAUR8

rea dauka. Pertsona bezainbeste sexualitate eta emakume eta gizon izateko modu daude. Bata ez da bestea baino hobeagoa, desberdina baizik, izaeraren antzera. Pertsona bakoitzak bere pertsonalitatea duen heinean, bere sexualitate propioa dauka. Hots, ez dago jarraitu beharra dagoen ona, normala, osasuntsua, eta abar den sexualitate eredu bat, norbanako bakoitzak berea du eta zoragarria da. Funtsan, sexualitatea emakume eta gizon izateko dugun modu bakar eta errepikaezin hori gure gorputzaren, komunikazioaren, afektu-emozioen, desiren, sedukzioaren... bitartez adierazten duguna da.

Joserra Landarroitajauregi sexologoa esaten duen bezala, «sexuak eskoletan, plazetan, lantegietan, etxeetan eta logeletan elkar bizi dira, baita gure barruan ere», denok ezaugarri femeninoak zein

maskulinoak ditugulako. Elkarbizitza batzuetan gatazkatsua izan ohi da, aldiz, helburua sinergikoa izatea da. Beraz, sexu pedagogian jarduten dugunok, argi dugu sexua definitzerakoan garrantzitsuena kultibatu eta sustatu beharreko balore bat dela azpimarratzea dela. Aldiz, gai tabua izaten jarraitzen du eta, gehiegitan, sexologiatik jardun beharrean, beste diziplina batzuetatik egiten da; eta hor jaiotzen dira askotan hanka sartzak.

Sexologia diziplina zientifikoa da, eta, sexua baino, sexuak interakzioan aztertzen dituen zientzia da, eremu publiko zein pribatuan; baina, badirudi, oraindik ez duela gizartearen eta akademiaren onarpena lortu. Ondorioz, ezagutzen ez dena asmatzen, gutxiesten eta lohitzen da. Beraz, berau purgatzeko hasi beharko gara eta espazio hau horretarako leku bikaina da. •

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



DUELA 40 URTE POLIZIAK ODOLEZ TINDATUTAKO SANFERMINAK

1978ko uztailaren 8an, Iruñeko sanferminetan, zezenketa bukatutakoan, gazte talde batek plazara salto egin zuen amnistiaren aldeko pankarta bat eskuan hartuta. Halako batean, dozenaka polizia plazara sartu ziren gomazko pilotak eta ke-potoak jaurtiz eta gupidarik gabe ezker-eskuin borra-kolpeak emanez. Geroxeago sartu ziren polizietako batzuek eskuan pistola ere ba zeramaten. Errepresioa basatia izan zen. Irudion egileak, Jorge Nagore Caverio Iruñeko argazkilaria, 25 urte geroago artikulu batean kontatu zuen beretzat egun hura bere bizitzako txarretakoa izan zela: «Robert Capa 1944ko ekainaren 6 hartan bezala sentitzen nintzen, goitik behera dardarka nengoen, eta argazkiak nekez ateratzen ziren, sentimenduek bustita. Zaldi-patioan lurrera botatako gorputz nahaspila zegoen, frantses batek, ipurdian tiro bat zuela, hanka arrastaka zeraman. Izugarria». Polizien jokabide basatia egun hartan Iruñea osora zabaldu zen eta dozenaka zauritu eragin zituen, baita German Rodriguezen heriotza ere, Orreaga etorbidean, bekokian tiro bat jaso ostean. Oso gaztetik argazkizalea, Jorge Nagorek 1977an hasi zuen «Deia» egunkarian bere ibilbidea foto kazetari gisa, eta hasierako urte haietan Estatuko zenbait aldizkari eta egunkarirekin ere kolaboratzen zuen, besteak beste, «El País». 80ko hamarkadaren hasieran liburu ilustrazioan ere jardun zuen, eta zenbait sari irabazi zituen. 1983an «Diario de Navarra» egunkarira pasatu zen; bertan, argazkigintza atala antolatu eta editore grafiko lanak egin zituen 2012an erretreta hartu arte.



JORGE NAGORE CAVERO

Parte hartu...
...eta irabazi sari zoragarri hauek!



EROSKI viajes

CANARIASEKO BIDAIA

Aste 1 (2 pertsona).
2018ko behe denboraldian.
Mantenu erdian.
Irteera Bilbotik.
Bidai-tasak ez dira barne.



maestre

SPECIALIZED MTB BIZIKLETA
ROCKHOPPER COMP 29".



EROSKI viajes

COSTA DAURADAN EGONALDIA

Aste 1 (2 heldu + adingabe 1).
2018ko behe denboraldian.
Mantenu erdian.



EROSKI viajes

COSTA DAURADAN EGONALDIA

Aste 1 (2 heldu + adingabe 1).
2018ko behe denboraldian.
Mantenu erdian.



EGUNEROKO SARIAK

20 Lote **NAIZ**:
6 hilabeteko harpidetza **NAIZ** L + Eguzkilore.



PUNTU ESTREN ZOZKETA


3 PACK **ANTSOTEGI** HOTELEAN (ETXEBARRIAN):
Gaua + gosaria. Behe denboraldian.

3 ARGAZKI KAMARA
PANASONIC
LUMIX SZ 10

SAMAR
FOTO • VIDEO • IMAGEN DIGITAL



OHARRA:
Lehen 4 sariak
zerga-atxikipena
izango dute.
Ogasunerari
indarreko
araudia betez.



PARTE HARTU

NAIZeko
helbide honetan:

tourjokoa.naiz.eus

naiz:

DOAN

PARTE HARTZAILE
BAKOITZAK
GEHIENEZ 3 TALDE
AUKERATU AHAL
IZANGO DITU.

Bidal iezaguzu
zure proposamena

Ekainaren

25etik

tourjokoa.naiz.eus
web orriaren bitartez.

eta JOKATU!

